



Ez da kasualitatea

BOST URTE BADIRA Mutrikuko berdintasun teknikariak martxoaren zortziko bueltarako emanaldi berezi bat eskatu zuela. Ariko ziren bertsolari eta gai-jartzaileek, emailez perfilatu zuten saioa: Nola eraman taulara generoa gora eta generoa behera partekatu izan zituzten pentsamenduak? Nolako gaiak, nolako aretoa, nolako posturak, nola giro-tua behar zuen? Emailezko iritzi trukean bota zuen gai-jartzaile arikuko zenak “(saio arruntetan) ezer ez da kasualitatea”, eta horixe bihurtu zen emanaldiaren titulu.

Geroztik horrelako hainbat egin dira, titulu beraren pean. Hurrengo martxoaren 22an harrapatuko duzu, Ezkio-Itsason. Hara joanda aurki dezakezuna hauxe da:

● **Partaidetza anitza.** Emanaldien atzean ez dago talde finkorik, inork ez du bere copyright-ik. Parte hartu izan duten bertsolari horiek denek agertu dute generoaz (eta beraz, direnaz eta jendeak espero zuenaz) kezka eta esperimintatzeko gogoia. Normaltasuna astintzeko, ohikoa den eran gizon eta emakumeak aritzen dira kantari, baina ezohiko proportziotan: askotan mutila bakarra izaten da, “saioko gizona”. Umorerako joko handia ematen du, eta bertsotan eguneroko ematen diren hainbat egoera bistaraten ditu: bera da gehiengoaren tonura egokitu behar dena, bera da gizon denen

ordezkari, berak bakarrik egin behar gizonkeriei buruzko adar-jotzei aurre...

● **Giro intimoa.** Kandela argiak ezaugarri bihurtu zaizkio emanaldia-ri. Entzule ugari bildu arren, gertutasuna bilatzen da: bertsolariek publikotik oso gertu eta batzutan aulki artetik kantatzen dute, konfiantza bilatzen da bertsolariek kortseak askatzeko aukera izan dezaten.

● **Erronka heavya.** Poz-pozik joan eta oholtzatik zintzilikatzeko gogoz itzuli zenak konta dezake: horrelako emanaldi batean aritzeko emozionalki indartsu egon behar du, edo bestela bertsotan fuerte, desorekei probetxu ateratzeko. Eskatzen du izaerei ziri-sartzea, norbere buruari eta ondokoei errepasoa ematea... eta behin bertso-kabaretean aritu ziren haiek bezala, egoeraren arabera moldeak hausteko gai direnak bihurtzen dira emanaldiko erregin. Gaiak oso baitira landuak, baina bertsolarien esku geratzen da uneoro gaiak lantzeko ohiko bideak urratzea: kantatzeko lekuak eta posturak hautatuz, gaiak aipatu ez dituen bertsolariak jokoan sartuz...

● **Musikaz “lagunduta”.** Beste galdera bat litzateke bertsolariek noraino laguntzen dieten musikariei. Herriko musikariak lotu izan dituzte antolatzaileek, elkarlana bultzaz. Emanaldia baino pare bat ordu lehenago elkartuko dira denak

entseatzeko, eta musikariek prestatutako doinuetan trebatuko dira bertsolariak. Horri esker hainbat kantu bertsotara ekarri dira, eta doinuen aniztasuna segurtatuta dago.

● **Gai-jartzaileak ere jolasaren parte dira.** Saio bakoitzari forma, norabide edo zentzu bat eman diote. Batzutan esketx bidez jarri dituzte egoerak, bestetan denok daramagun motxilatik gauzak ateratzea izan da saioaren helburua, bada saioaren ostein bertsolariei buruzko konklusioak egin dituenik...

● **Oreka.** Genero gaietan inplikaturako antolatzaile bat egon ohi da saioen atzean (berdintasun teknikariak, militanteak...), gaiaren inguruan ari diren bertsolariak biltzen dira, parte hartzeko prest diren herriko musikariak elkartzen dira, gai-jartzaileek egin nahi dutena frogatzeko aukera baliatzen dute... Emaitza: bakoitzak bere lanketa egiten du, eta elkarrekin egunean bertan bi orduko entsegua eginda, gustuz prestatutako emanaldi espontaneo segurtatuta dago. Batekora irekia baina bakoitzak bere eremutik zaindua. Arrasaterako Axpi marrazkilariak egindako kartela (irudian) horren adibide. ■



**Estitxu
Eizagirre Kerejeta**